

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIVATUEN FUNTZIONAMENDURAKO JARRAIBIDEAK, AURREZ AURREKO HEZKUNTZA-JARDUERA ETENDA DAGOEN ALDIAN.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko asmoz alarma-egoera ezartzeari buruzko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan aurrez aurreko hezkuntza-jarduera eten denez, hezkuntza-komunitateari zerbitzua emateko eta denbora horretan ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua errazteko, honako jarraibide hauek ematen dira:

1. Behar bezalako baliabide digitalak izanez gero, irakasleek urrundik gauzatuko dute beren irakaslan, baita koordinazio-lanak ere, hau da, ez dute ikastetxera joan beharko, baldin eta ikasleei irakaskuntza-arreta ez-presentziala bermatzen bazaie.
2. Beren pedagogia- eta kudeaketa-autonomiaren eremuan, ikastetxeetako arduradunek irakaskuntza-saio ez-presentzialak antolatu eta koordinatuko dituzte, baina, beharrezkoa bada, langileak une zehatz batzuetan ikastetxean agertzea eskatzen ahalko dute. Behar beste antolaketa neurri ezarriko dira, ikasle guztien irakaskuntza-arreta ez-presentziala bermatze aldera. Nolanahi ere, Batxilergoko 2. mailako ikasleei emanen zaie lehentasuna.
3. Ikastetxeko zuzendaritzaren koordinaziopean, irakasleek ikasleekin egindako irakaskuntza-jarduera ez-presentzial guztien jarraipena eta erregistroa gauzatuko dituzte.
4. Jantoki eta garraio zerbitzuak eteten dira, baita jarduera osagarri guztiak eta eskolaz kanpokoak ere.
5. Ikastetxeetako arduradunek zuzendaritza taldea eta administrazio eta zerbitzuetako langileak antolatuko dituzte, administrazio kudeaketaren jarraipena bermatzeko eta garbiketa zerbitzuak, mantentze-lanak eta obrak errazteko. Horri dagokionez, Hezkuntza Departamentuak garbiketa enpresei jakinarazi die ikastetxeetako talde arduradunen esanetara egonen direla ordutegiak antolatzeko eta egungo egoerak eskatzen duen berariazko garbiketaren buru-belarri aritzeko (garbiketa berezia hauetan: komunak, eskailerak, barandak, ateetako heldulekuak eta abar).
6. Ikastetxeak ahalegina egingen du, ikasleen maila, etapa eta ezaugarrien arabera, familia-eremuan ikasten jarraitzeko, eskola-jardueraren berezko lan-ohiturak eta errutinak mantentzeko.
7. Horretarako, ikastetxe bakoitzak, bere pedagogia- eta kudeaketa-autonomiaren barruan, ikasleekin eta familiekin harremanetan jartzeko, informatzeko eta elkarri eragiteko sistema bat ezarriko du, ohiko plataformen bidez (EDUCA eta barne-mezularitzako zerbitzua, posta elektronikoa, classroom, ikastetxearen webgunea, bideokonferentzia ...), bai eta ikastetxeek egokitzen duten beste edozein komunikazio-bide ere.
8. Departamentuak IKT baliabideen zerbitzu-kanal bat aktibatuko du, ikastetxeek eta irakasleek erabil dezaten. Nafarroako irakaskuntza-jarduera presentziala eteteko ezohiko aldian, <https://ikasnova.digital/> webgunea erabiliko da materialak, IKT tresnak, proposamenak eta jarduera-protokoloak komunikatzeko gune gisa, ikasleei eta haien familiei aurrez aurrekoa ez den arreta emateko orduan. Material eta proposamen irekiak dira, eta etengabe garatzen ari dira.

9. Hezkuntza Departamentuak jarduketak eginen ditu EDUCAren erabiltzaile aktiboen kopurua handitzeko, aurreko puntuan adierazitako tresnen erabilera familietara zabaltzeko.
10. Departamentuko IKT zerbitzuen aholkularitza eta etengabeko prestakuntza. IkasNOVArekin koordinatuta, irakasleentzako laguntza zentroetako hezkuntza-teknologiako aholkulariek laguntza emanen diote ikastetxe publikoetako hezkuntza-komunitateari, ahal dela hezkuntza-teknologiako koordinatzaileen eta ikastetxeetako ikasNOVAren arduradunen bidez.
11. Arrakala digitala gainditzeko, ikastetxe bakoitzak neurri eta prozedura egokiak ezarriko ditu, ikastetxearen baliabide propioak eskura jartzea barne, informazio eta zeregin horiek informazioaren teknologiak erabiltzeko zailtasunak dituzten edo baliabide egokirik ez duten familiei eta ikasleei helarazteko.
12. Ikastetxeek arreta berezia jarri beharko dute Batxilergoko 2. mailako ikasleen tutoretzan, unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazio-probetara aurkeztu behar baitute.
13. Plan bat ezarriko da familiei eta ikasleei urrutiko informazio-, arreta- eta tutoretza-zerbitzu pertsonalizatuak bermatzeko, aurretiko hitzorduaren bidez.
14. Departamentuak berariaz bestelakorik adierazi ezean, ez da klaustrorik deituko, ezta langileen bilera presentzialik ere ikastetxeetan.
15. Ikastetxeetako arduradunek zainduko dute ikastetxeetako langile guztiek bai jarraibide hauek, bai horiek bete beharra, ezagutzen dutela. Familiei ere emanen zaie jarraibide horien berri, egokitzat jotzen diren bideetatik.
16. Jarraibide horiek, eguneratu daitezkeenak, aipatutako aurrez aurreko hezkuntza-jardueraren etenaldia amaitu arte aplikatuko dira, eta hori behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie zuzendaritza taldeei, gutxienez bitarteko honen beraren bidez.

Iruñean, 2020ko martxoaren 15ean.

HEZKUNTZAKO
ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González